

b.e.r.r.i.a.k

z.i.r.i

**MAITE  
PAGAZAURTUNDUA**Gipuzkoako PSOEko  
parlamentarioa«Orain, Hezkuntza Sailak plan  
bat du: nahi du gaztelania  
desagertarazi patioetatik,  
klastroetatik, eskolatik  
kanpoko ekintzetatik»

EL DIARIO VASCO

**JOSU BERGARA**Bizkaiko Garraio  
Partzuergoko lehendakaria«Bilbo arkitekturaren  
munduan ezagun egitea ere  
ekarri du Metroak»

DEIA

**ALEX DE LA  
IGLESIA**

Zinema zuzendaria

«Zineman, bizitzen ez duena  
egiten du batek. Amodiozko  
istoriorik onenak Hitchcokek  
kontatu zituen, emaztearekin  
bizi zen lodi batek»

«EL PAIS

**SALVA IRIARTE**


Reala B-ko entrenatzailea

«Klubean egiten dudak guztia,  
zernahi dela ere, izugarri  
gustatzen zait»

EGIN

zuzendaria

**Klasikoak, S.A.-ren oharra:**

 Piarres Xarritton, Spinozaren *Etika* obraren itzultzaileak ostegunean EUSKALDUNON EGUNKARIARI aditzera emandakotik agian gaizki-ulertzeren bat sor litekeelako, Klasikoak, S.A.-k honako hau jakinarazten du:

a) Klasikoak, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak Bildumaren hasieratik hartutako erabakia dela sinatzaile eta arduradun banako eta bakarraren erantzukizunpean itzulpenak argitaratzea.


b) Arduradun horri dagokiola enpresaren aurrean erantzutea, eta Klasikoak, S.A.-k ez duela aintzakotzat hartzen beste inoren balizko lankidetzak edo eskuhartzerik.

c) Klasikoak, S.A.-k edozein pertsonaren lankidetzak onartzen duela, bere helburuak betetzeko egokitzat jo eta horretarako dauden prozeduren bitartez hautatua izanez gero.

● **Andoni Iriondo**

BILBO

**Euskaldunok elkarri mokoka**

 Ez da berria. Aspaldiko kontua da. Gerora begira ere horrela izango da, zoritxarrez. Aintzinatik dator elkarren arteko borroka hau. Euskaldunon patua da, dirudienez. Elkarri erronka egiteko betibeti prontoago gaude bostekoa ematea baino.

UEMARI (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea) egokitu zaio oraingoan paraitzea azken eraso. Zer helbururekin egin asmo dute? Begi-bistan dago: boterea bereganatzeko. Horretarako, Eudel elkarteak sortu euren asmoak bideratzeko. Ondorioz, UEMA elkarteari, Eudel sortuz, ondo funtzionatzen ari den bati oztopoak jartzea litzateke. Eta horrela, Euskal Herriko Udaletxeen artean beste borroka bat hastear dago; herriak euskalduntzeko helburua aurrera eramateko denok elkarturik premia dagoen.

Beste behin diot, bada betidanik honela gabilta-eta ia arlo guztietan. Izan ere, herri mugimendua euskalduntzen hasi zenean, AEK sortu zen; handik zenbait urtera, HABE elkarteak azaldu zitzaigun aurrekoen helburu

berberarekin. UEUrekin, (Udako Euskal Unibertsitatea) beste hainbeste; Administrazioak EHUko Uda ikastaroak antolatzen ditu; batez ere kanpotarrentzat izaten direla, euskarazko eskaintza nahiko urria dela.


Azken finean, denok elkartuta joan beharrean, sakabanaturik ibil gaitetzen nahiko balute bezala.

Zer hobeto Ikastolen mugimendu soziala bezalako bat izatea —kolore guztietako jendea elkartzen duena— euskara arlo orotan aurrera ateratzen dadin...

● **Eukeni Santamaria**

ORIO (GIPUZKOA)

**COFES zerbitzua bere horretan utzi**

 Orain dela bi urte eskas gure zonaldean, COFES zerbitzua martxan jarri zen. Gurea bezalako landa eremuan hain zerbitzu guti izanik, garaipentzat jo genuen COFES-a lortzea.

Irakasleak garen aldetik, gure lana aintzineran eraman ahal izateko COFES-Haizeak eskaintako baliabideak erabili ditugu.

Beraiekin batera pubertaroa edota nerabezaroari buruzko unitate didaktikoak osatu eta praktikan jarri ditugu. Hasitako lanari hurrengo ikasturteetan jarraipena eman nahi diogu.

Bertzalde, aipatutako murrizketak COFES-ek gure eskualdean eskaintako zerbitzuetan eragina zuen, hala nola prebentzio, heziketa eta asistentzia mailan.


Beraz, dagoen eskaera soziala ikusita COFES-etako zerbitzuak eta plantilak mantentzea edota haunditzea eskatzen dugu.

● **Joseba Laguardia**

(Baztango herrietako eskolotako

17 irakasleren izenean)

**Beti betiko euskara bizirik?**

 Pasa den maiatzaren 25ean Leioan izan ginen, bertan ospatu zen ikastolen aldeko jaian; Ibilaldian hain zuzen. Goizean aldezti konturatzeko hain ginen euskara gutxi entzuten ari ginela jen-

dearen ahotan. Aurten Ibilaldian euskarazko lekuko bat ibili da ibilbide guztian zehar, euskaraz hitzegiten ari zirenen artean pasatzen. Hau entzun genuenean, hasieran umore hartu genuen, eta elkarri esaten genion «Pentsa ezazu, lekukoa nori pasatu ez dakien ibiliko da jendea». Izan ere, nekez aurki zitezkeen euskaraz ari zen norbait.


Denborak aurrera egin ahala, hasierako umorea amorru bilakatzen hasia zen; ez arratsaldeko bostak aldera, kurioxita hitzatu, pentsatu genuen, orduan hasi eta etxera joan bitartean, zenbatu egingo genituela euskaraz mintzatzen entzuten genituenak. Zortzi eta erdiak aldera etxeratu ginen eta ba al dakizue zenbat pertsona entzuten genituen euskaraz? 10 pertsona besterik ez.

Ez al da lotsagarria? Ibilaldia 97-ko lehen Beti betiko euskara bizirik izan da, eta bertan hurbildu zen jende askorengatik behintzat ez du euskaraz denbora luzean bizirik irauten.

● **Josu Varela eta Nere Arostegi**

DEBA (GIPUZKOA)

**Klasikoak, S.A.-ren oharra:**

 Piarres Xarritton, Spinozaren *Etika* obraren itzultzaileak ostegunean EUSKALDUNON EGUNKARIARI aditzera emandakotik agian gaizki-ulertzeren bat sor litekeelako, Klasikoak, S.A.-k honako hau jakinarazten du:

a) Klasikoak, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak Bildumaren hasieratik hartutako erabakia dela sinatzaile eta arduradun banako eta bakarraren erantzukizunpean itzulpenak argitaratzea.

b) Arduradun horri dagokiola enpresaren aurrean erantzutea, eta Klasikoak, S.A.-k ez duela aintzakotzat hartzen beste inoren balizko lankidetzak edo eskuhartzerik.


c) Klasikoak, S.A.-k edozein pertsonaren lankidetzak onartzen duela, bere helburuak betetzeko egokitzat jo eta horretarako dauden prozeduren bitartez hautatua izanez gero.

● **Andoni Iriondo**

BILBO

s e i k o u r r e a

**Jon Sarasua**

 hain urrundik egindako sinplifikazioek argia erakusten dute: sakonean, eta nagusiki, nazionalista gazteak ziren PSOEko buruzagi haiek. EEBBetan mezu hura (CIA eta gainerakoak lanean zebiltzan une berezi hartan) ez zen intentziorik gabea: lasai, hauen sozialismoak ez dio inperioari kalterik egingo.

Jakina ezetz. Izan ere nazionalismoa disfrazatu egiten da. Gonzalezen sakoneko idearioa Espainia izeneko nazioa zen: nazio hori munduko amildegi ikaragarrian piblegiatuen taldean egotea, bat, handi, libre. Ideario nazionalista sozialdemokrata.

Eta hala izan da inperioaren kudeatzaile txiki, estatuaren kudeatzaile handi. Politikari ona izan dela esango nuke. Politikari ona izateko hainbat abilezia behar du. Besteak beste, botereari neurria eta gustua hartu; norbere kontzientzia domatzen jakin; bi edo hiru ahots izaten ikasi; azpilararen teknikan berezko piska bat izan; gizakiaren puntu ahuletan eragiten trebatu... Eta Felipe funtzionatu duela dirudi. Ona da, Xabier Arzalluz ona den bezala. Arazo txiki bat dago: politikari ona izateko pertsona bezala izan behar du piska bat deformatua. Deformazio estandarra baino

piska bat landuagoa. Eta ez zait iruditzen Felipe denik deformatuena.

Norbeto Keppe soziologo eta psikologo brasildarrak, bere iker-bizitza horretara bideratuta, ondorio bat ateratu du: boterearen funtzionamendua psikologikoki patologikoa dela. Psikoterapian ibilita ohartu da psikologikoki desorekatuenak diren pertsonak botere bila aritzen direla.

Hau ez da, jakina, matematikoa, baina bai argibide garrantzitsua. Edozein kasutan, patologia hazi eta beherantz kutsatu egiten da boterean. Keppe ez dabilela osoker somatzen du edozein motatako agintariek (Lakuan eta unibertsitatean, adibidez) harremanetan ibili denak. Boterearen psikopatologia zaharrak soka luzea du, denok harrapatzen gaitu, eta maila guztietan adierazten dugu: familian, lanean, administrazioan eta abarretan.

Tximua arbolan gorago eta ipurdia ageriago dio, ordea, esaera zaharrak. Besterik ere gertatzen da: tximua tximuago, orduan eta gorago arbolan. Gorago, orduan eta itsusiago ipurdia. Boterearen arbolan adar argi eta ilunetan ondo gora joandako nazionalista espainiar gazteari ipurdia piska bat ezagutu diogu. Ez da bereziki polita. Zoaz, Felipe, on egingo dizu.

**Young nationalist**

**A** Ide egiteko keinua egin du Felipe Gonzalezek. Noizbait beste kartaren batekin itzultzeko asmoa izan dezake, baina demagun benetan aldegin duela. Pozten naiz. Txikitatik halako sinpatia bat eragin izan dfit Felipek. Politikarietan ohizkoa dena baino nortasun sendoagoa duela iruditzen izan zait hainbat urtetan.

Young spanish nationalist bezala definitu zuen EEBBetako aldizkari prestigiosuenak, 1982an boterera igo zenean. Askotan